



165. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2022ko martxoaren 30ean, arratsaldeko bost eta erdietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da Ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak: Alex Oleden Antia, jna.
M. Arritokieta Iribar Egaña, and.
Maider Alberdi Yeregui, and.
Asier Arakistain Alberdi, jna.
Maddi Aldalur Osa, and.
Marina Bidasoro Arocena, and.
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.
Jose María Azkue Castillo, jna.
Oier Korta Esnal, jna.
Gotzon Embil Unanue, jna.
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.
Arritokieta Marañón Basarte, and

Ez bertaratuak: M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Cristina Vicente Iciar, and.
Iker Mardaras Arrieta, jna.

Idazkaria: Ander Cestona Unanue

Arratsalde on:

Lehendabiziko puntua:

1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA: (164. zbkia – 2022.03.10)

164. akta onartutzat ematen da



2.- LURRALDE ANTOLAMENDUA (Hirigintza, Ingurumena, Zerbitzuak eta Auzoak).-

2.1.- IRIZPENA:

2.1.1.- ZUMAIAKO KARMELDARREN KOMENTUA ERABERRITZEKO PROIEKTUA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

**2022KO MARTXOAREN 21EKO LURRALDE ANTOLAMENDUKO BATZORDEAREN IRIZPENA:
ZUMAIAKO KARMELDARREN KOMENTUA ERABERRITZEKO PROIEKTUA ONARTZEKO**

AURREKARIAK

1.- Zumaia Udala 2008. urteaz geroztik San Jose Karmeldar Oinutsen komentuaren jabe da. Jasotako lagapenaren ondoren hainbat jarduera egin dira bertan, horien artean aterpetxe bat eta Kapera auditorio gisa erabiltzea.

Hainbat azterlan eta prozesu parte-hartzaile egin dira alde zurretik, eraikinaren balizko erabilera erabakitzeke. Egungo Gobernu taldeak Udal Musika Eskolan ezartzea erabaki du, baita eraikinaren erabilera bateragarri egitea ere hainbat erabilera kulturaletarako eta aterpetxe baterako.

2.- 2020ko lehen hiruhilekoan erabilera idatzi eta definitu ziren, eta oinarritzko proiektua idatzi zen.

Oinarritzko Proiektuaren ezaugarriak honako hauek ziren:

Proiektua: ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN SAN JOSE KOMENTUA BIRGAITZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA, ERABILERA SOZIOKULTURAL ETA TURISTIKOKO ERAIKINERAKO.

Egilea: ZETABI Arkitektura Bulegoa S.L.P.

Data: 2020ko martxoa.

Aurrekontua (PEM): 2.721.390,01 €

3.- Proiektu hau oinarritzat hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiari obra baimena luzatu zitzaion, babestutako eraikina denez ezin bestekoa baita. 2020ko Ekainak 6ean aldeko txostena luzatu zuen Foru Aldundiak, baldintza bezala Gauzatze proiektuak ere oniritzia jaso behar zuela ezarriaz.

4.- 2020ko Udan Gauzatze proiektua esleitu zen Prozedura ireki baten bitartez eta talde berdinari esleitu zitzaion zegokion prozedura jarraituta.

5.- 2020ko Martxoan Zetabi Arkitektura Bulegoak Gauzatze proiektua aurkeztu du:

Izena: ZUMAIAKO KARMELDAR OINUTSIEN KOMENTUA BIRGAITZEKO GAUZATZE PROIEKTUA, ERABILERA SOZIOKULTURAL ETA TURISTIKOKO ERAIKINERAKO.

Egilea: ZETABI Arkitektura Bulegoa S.L.P.

Aurrekontua (PEM): 3.531.642,19€

TOTAL PRESUPUESTO GENERAL 5.085.211,59€

6.- Ikusirik Zumaia Udaleko Zerbitzu teknikoek egindako aldeko txostena.

7.- Ikusirik Zumaia Udaleko turismo Sailak eta Kultura Sailak egindako aldeko txostena.



Zumaia Udala

2022IAKU0003-A22/2822

8.- Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Sailak Gauzatze proiektua jaso ondoren egindako aldeko txostena.

9.- Ikusirik 2021-10-18 ko Urriaren 18ko Lurralde Antolamenduko batzordean, Proiektuaren informazioa eman zela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2022ko Martxoaren 21eko Lurralde antolamenduko Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Iñaki Ostolaza Esnal (Bildu)
MarinaBidasoro (Bildu)
Alex Oliden (Bildu)
Oier Korta (EAJ)
Ainhoa Illarramendi (EAJ)

Aurka: 0

Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta proposamen hau udalbatzaren osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo absolutoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

1.- Zetabi Arkitektura Bulegoa S.L.P-K idatzitako ZUMAIKO KARMELDAR OINUTSIEN SAN JOSE KOMENTUA BIRGAITZEKO GAUZATZE PROIEKTUA, ERABILERA SOZIOKULTURAL ETA TURISTIKOKO ERAIKINERAKO proiektua Onartzea.

Zumaia, 2022ko martxoaren 21.

Alkatea

Lurralde Antolamenduko batzordeburua
Iñaki Ostolaza Esnal

Gaiaren azalpena egin ondoren proiektua bozkatzeko da,

Aldeko botoak: 14 boto (9 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Zetabi Arkitektura Bulegoa S.L.P-K idatzitako ZUMAIKO KARMELDAR OINUTSIEN SAN JOSE KOMENTUA BIRGAITZEKO GAUZATZE PROIEKTUA, ERABILERA SOZIOKULTURAL ETA TURISTIKOKO ERAIKINERAKO proiektua onartzen da.-



3.- EUSKARA ETA HEZKUNTZA.-

3.1.- IRIZPENA;

3.1.1.- ZUMAIAKO KALE IZENDEGIA EGUNERATZEARI BURUZKOA,

2022KO MARTXOAREN 21EKO EUSKARA ETA HEZKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIAKO KALE IZENDEGIA EGUNERATZEARI BURUZKOA (GOIKO ALBERGA PLAZA ETA MAREAEERROTA PLAZA).

AURREKARIAK

1.- 2019ko martxoaren 28an egindako Ohiko Osoko Bilkuran kale izendegia egokitzea onartu zuen Udalak, aho batez.

2.- Erabaki hori GAO aldizkari ofizialean argitaratu zen 2020ko urtarrilaren 8an, zerrenda eta guzti.

3- Historian gune horiek izan duten garrantzia aintzat hartuta, Ardantzabide hasierako plaza bati "Mareaeerota plaza" izena jartzeko proposamena landu du Euskara Zerbitzuak, batetik, eta udaletxe ondoan artxiboaren eraikinaren inguruko zabaldegia "Goiko Alberga plaza" deitzekoa, bestetik. Izen horiek eta arrazoiak gizarteratzeko Kultura Sailarekin elkarlanean aritzea aurreikusita dago.

4.- 179/2019 Dekretuak V. Kapituluaren xedatutakoaren arabera, Euskaltzaindiari eskatu behar zaio izen berriei buruzko txostena. Euskara Zerbitzuan landutako informazioa aintzat hartuta, 2022ko martxoaren 8an eman zuen Euskaltzaindiak aldeko txostena.

5.- Toki Erakundearen Biztanleriari eta Lurralde Mugaketari buruzko araudiak 75. artikulua dioena eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen Legeko 22.2 q) letrak dioena kontuan izaten baditugu, Udalarik dagokio kaleei izenak jartzea.

IRIZPENA

Ondorioz, 2022ko martxoaren 21eko Euskara eta Informazio Batzordeak, honako boto hauekin:

Alde: 2 EAJ, 2 EHBILDU

Aurka: 0

Abstentzia: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMEN HAU egin da:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea Zumaia kale izendegia eguneratzeari, zerrendan GOIKO ALBERGA PLAZA eta MAREAEERROTA PLAZA gehituta.



Zumaia Udala

2022IAKU0003-A22/2822

Bigarrena.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko erabakia behin betikotzat hartuko da, 7/1985 Legeko 49. artikulua araber.

Hirugarrena.- 179/2019 Dekretuak 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalak toponimoa edo leku geografikoa behin betiko onartu eta gero, udal idazkaritzak espediente osoaren kopia bidaliko dio hizkuntza normalizazioaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

Planoan azaltzen dira zein izango litzatekeen plaza horiek, beraz, puntu hau bozkatu egiten da, honako emaitzarekin:

Aldeko botoak: 14 boto (9 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Hasierako onarpena ematea Zumaia kale izendegia eguneratzeari, zerrendan GOIKO ALBERGA PLAZA eta MAREAERROTA PLAZA gehituta.

2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako epean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behineko erabakia behin betikotzat hartuko da, 7/1985 Legeko 49. artikulua araber.

3.- 179/2019 Dekretuak 45. artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalak toponimoa edo leku geografikoa behin betiko onartu eta gero, udal idazkaritzak espediente osoaren kopia bidaliko dio hizkuntza normalizazioaren eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

Hiru mozio daude eguneko gai zerrendan sartu gabe, beraz lehendabizi gaia tratatua edo eztabaidatua izango den bozkatzeko da

Lehendabiziko mozioa da, MUGIREN TARIFA EREDUA BABESTU ETA SUSTATZEARI ETA MUGI SISTEMAREN TARIFAK SOZIAL ETA EKONOMIKOAGOAK IZATEKO NEURRIAK HARTZEARI BURUZKO MOZIOA, EH BILDUK ETA PSEK AURKEZTUTAKOA,

Aldeko botoak: 14 boto (9 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0



ERABAKIA: EH BILDUK eta PSEk aurkeztutako proposamena eztabaidatzea onartzen da,

Proposamenaren puntuak irakurtzen dira:

“ Zumaia Udalak tarifak berritzean neurri hauek eztabaidatu eta onar ditzan eskatzen dio Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari:

Eta lehenengo puntua da:

Garraio publikoaren erabiltzailerik ohikoenen batez besteko kostua jaisten laguntzeko neurri hauek hartzea:

- Tarifan balizko jeitsieraren, eta honek izan ditzakeen ondorioen, azterketa adostea. Azterketa hau eskuan, gutxienez hurrengo bi ekitaldietan tarifan prezioak izoztuta mantentzea, inolaz ere ezin daitezkeen izan garraio publikoaren erabiltzaileak eta beren soldatak energia eta erregaiaren igoera eragin duten krisiei eta Gipuzkoako gizarteari eragiten dion inflazio handiari aurre egiten dietenak
- MUGIren deskontu sistemaren aldaketa onartzea, haren progresibitatean eta justizia sozialean sakontzeko, eta laugarren tartea sortzea, MUGIren erabiltzaileei doakotasun handiagoa emateko MUGI txartela erabiltzen duten tarte guztietan

Bigarren puntua izango litzateke:

MUGI sistemaren tarifa ereduaren misio sozialean aurrera egitea eta bereziki zaurgarriak diren gizarteko kolektibo berriak sartzeko.

Hirugarren puntua:

Zumaia Udalak Gipuzkoako garraio sistemaren zerbitzu guztiak berreskuratzearen alde dago, baita erabiltzaileak gutxitzeagatik edo beste edozein erabakirengatik arriskuan egon direnak ere, eta Renfe Aldirien zerbitzuaren egoera arintzen laguntzeko neurriak aztertzearen alde egiten du.

Laugarren puntua:

Zumaia Udalak garraio eskaintza behar beste zabaltzeko eskatzen dio Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari, erabiltzaile guztien eskaerei erantzuteko.

Eta bosgarrena:

Jakinik Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa sistemaren kostuak handitzea ekar dezakeela horrek guztiak, Zumaia Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio errepideen foru sarean bidesaria ordaindu behar den zatietan bildutakoaren zati bat garraio publikoa sustatzeko erabil dezan eta Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuaren zazpigarren titulua eta hura garatzeko dekretua martxan jar ditzan –martxoaren 29ko 1/2011 Foru Arauaren bidez onartu zen Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuaren zazpigarren titulua–.

Azken finean da laugarren tramua bat zabaltzea eta tarifak jaitea, bueno ... txosten bat egitea eta adostea Gipuzkoar gehienok, transporte publikoa erabiltzen dugunok, ba ... onurak izan ditzagun garai zailetan

Proposamena, alderdi bakoitzeko kideak iritzirik eman ondoren bozkatuko egiten da



Zumaia Udala

2022IAKU0003-A22/2822

Aldeko botoak: 14 boto (9 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: EH BILDUK eta PSEk aurkeztutako proposamena onartzen da, Mugiren tarifa eredu babestu eta sustatzeari eta mugi sistemaren tarifak sozial eta ekonomikoagoak izateko neurriak hartzeari buruzkoa,

Baita ere, proposamen bezala ekarri den beste mozioa, HERRI BARNEKO BIDAJETARAKO TARIFA BATERATUA GARRAIO PUBLIKO GUZTIETAN EAJ-ak aurkeztutakoa, tratatua edo eztabaidatzea izango den bozkatzeko da

Aldeko botoak: 14 boto (9 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: EAJ-k aurkeztutako proposamena eztabaidatzea onartzen da,

Proposamenaren azken puntuak honako hauek dira:

“ Horrenbestez, aipatutakoak kontuan izanik, Zumaia Udaltzarrak honako puntuak onartzen ditu:

1.- Zumaia Udalak irmoki defendatzen du Zumaian kokaturiko geltokien artean burutzen diren bidaiak guztietan, erabiltzen den garraiobide publikoa edozein dela ere (Euskotren edota Lurraldebus), gaur egungo MUGI sistemako 3. herribuseko tarifa kobratzea beharrezkoa dela.

2. GGLAko presidenteari tarifa sistema hori edozein garraiobide publiko erabili arren, herri bereko geltokien artean egiten diren bidaietan MUGI sistemako herribusetako tarifa kobratzearena- Gipuzkoa osoan ezartzeko eskaera modu formalean egingo dio Zumaia Udalak; GGI-A baita Gipuzkoako tarifa sistemak ezartzeko gaitasuna duen erakundea.

3. GGLAko Balzar Orokorrean gaia eñabaidatzeko eskaera zuzena eta formala egingo du Zumaia Udalak.

4. GGLAko presidenteari edota Balzar Orokorrean proposaturiko tarifa sistema Gipuzkoa osoan ezartzea ukatuko balu, eta ez baluke bestelako irtenbiderik eskainiko, Zumaia Udalak, dituen baliabideak medio, Zumaian garraiobide guztietan egiten diren bidaiak herritarrei MUGI sistemako 3. herribuseko tarifa kostatzeko neurriak edota dirulaguntzak ezarriko ditu.

5. GG LAK bestelako irtenbiderik ematen ezanean, Zumaia-Zumaia arteko bidaiak egitean, MUGI txartela erabiltzen dute erabiltzaile guztiei konpentsatuko zaie ordaintzen duten prezio gehigarria (MUGI sistemako 3. herribuseko eta 0 jauziko tarifen arteko prezio gehigarria), inolako diskriminazio edota bereizketarik egin gabe.

6. Jadarre auzoan eta Amaia Plazan eta, uda garaian, Santioko hondartzan autobus geltoki berriak jarri eta geltoki horietaz baliatuz herritarrak Zumaia barruan hiriarteko



Zumaia Udala

garraio bide zerbitzuak erabiliaz mugitzeko aukeraren aurreproiektu bat idaztea eskatzen dio GGLari.

2022IAKU0003-A22/2822

Proposamena, azaldu eta eztabaidatu ondoren bozkatu egingo da,

Aldeko botoak: 4 boto (EAJ-PNV,)

Kontrako botoak: 10 boto (9 EH BILDU, 1 ES-SV,)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: EAJ-PNVek aurkeztutako proposamena " Herri barneko bidaietarako tarifa bateratua garraio publiko guztietan " izenekoa ez da onartzen,

IÑAKI OSTOLAZA: Azkenengo proposamena,
"MENDEBALDEKO SAHARAKO GATAZKARI BURUZKO MOZIOA"

Proposamena eztabaidatzeko bozkatzen da,

Aldeko botoak: 14 boto (9 EH BILDU, 4 EAJ-PNV, 1 ES-SV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: EAJ-PNV-ek aurkeztutako proposamena eztabaidatzea onartzen da,

Proposamen hau egin duen talde politikoari emango diot hitza, eta berak irakurri egiten du

"MENDEBALDEKO SAHARAKO GATAZKARI BURUZKO MOZIOA

Espainiako Estatuak, arrazoi historiko, politiko eta juridikoengatik, erantzukizun handia dauka bizi-bizi dirauen Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan.

Izan ere, 1975ean, Hagako Nazioarteko Auzitegiak legez kanpoko jo zituen 'Madrilgo Akordioak'. Ondorioz, Marokok ez dauka subiranotasunik Mendebaldeko Saharan, eta okupazioa legez kanpoko da erabat.

Duela hamarkada batzuk, Nazio Batuen Gutunean jasotzen denarekin bat etorritik, NBEak Mendebaldeko Saharaz adierazi zuen "Lurralde ez Autonomoa" dela, gobernu propioa osotasunean eskuratu ez duten herrien lurraldeei ematen zaien izendapenaren arabera. Afrika osoan, Mendebaldeko Saharakoa da oraindik etenda dagoen estatutu post kolonial bakarra.

Halaber, Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Gobernuari etengabe erreklamatu dio potentzia kolonial administratzailea izanik -'de iure'ere bai Auzitegi Nazionalak 2014an ebatzi zuen autoaz geroztik-, ahalegindu dadila behar adina Saharako Herriak bere autodeterminazio eskubidea erabil dezan erreferendunaren bidez.



Zumaia Udala

2022IAKU0003-A22/2822

Espainiako Gobernuaren aldebakarreko erabaki berri hau ez da jarrera sinesgarria, ezta errealista ere, izaera politikoko gatazka hau konpontzeko. Horiek horrela:

1- Zumaia Udalak erabat arbuiatzen du Espainiako Gobernuko agintariak Mendebaldeko Saharako gatazka politikoaren inguruan jarrera errofik aldatu izana, historian inoiz ez bezala. Aldaketa honek esan nahi du Marokok Mendebaldeko Sahara erabat bereganatzeko dituen asmo eta anbizioekin bat egiten duela Espainiako Gobernuak.

2- Zumaia Udalaren ustez, Espainiako Gobernuaren azken jarrera honek erabat urratzen ditu Nazioarteko Zuzenbidea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta baloreak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak, irtenbide politiko bidezko eta iraunkorra aldarrikatzen baitute, alde bien artean adostua eta Saharako Herriaren borondatea askatasun osoz adierazteko eskubidea gauzatuz amaitu beharko litzatekeena.

3- Zumaia udalak eskatzen die Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari berari EBko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenak errespetatzeko. Ebazpen horien arabera, Mendebaldeko Saharako era guztietako baliabide naturalak Saharako Herriari dagozkie eta, haren baimenik gabe, ezin ditu inork erabili.

4- Zumaia Udalak inplikaturako alde guztiei eskatzen diete uko egiteko probokaziozko edo indarrezko edozein ekintzari; eta konpromisoa hartzeko elkarriketa eta negoziazio prozesuarekin jarraitzeko, Mendebaldeko Saharan Erreferendumerako Nazio Batuen Misiorekin (MINURSO) hitzartutako akordioak erabat errespetatuz.

Eta,

5- Zumaia Udalak bere lurraldea okupatuta duen herriaren tragedia aitortzen dute; baita basamortuan bizirautea lortzen duten errefuxiatuena ere. Ondorioz, Zumaia eragile zein herritarrei dei egiten diete jarrai dezatela Mendebaldeko Saharako eta Tinduf-eko kanpamentuetako egoera humanitarioa hobetzeko laguntza eskaintzen."

Alderdi politikoak gaia luze azaldu eta gero bozka egiten da emaitza honako izanik:

Aldeko botoak: 13 boto (9 EH BILDU, 4 EAJ-PNV,)

Kontrako botoak: boto 1 (ES-SV)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: EAJ-PNVk aurkeztutako proposamena onartzen da, MENDEBALDEKO SAHARAKO GATAZKARI BURUZKOA

Eta honekin ezohiko osoko bilkura amaitutzat ematen da, eskerrik asko

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hamar minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria